## ARAUTEGIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO (UPV/EHU) FARMAZIA FAKULTATEAREN FARMAZIAKO ETA GIZA NUTRIZIOKO ETA DIETETIKAKO GRADU BIKOITZA LORTZEKOA


1. artikulua. Helburua

2. artikulua. Aplikazio eremua

3. artikulua. Zuzendaritza akademikoa eta betearazlea

4. artikulua. Batzorde Akademikoaren osaera

5. artikulua. Batzorde Akademikoaren eginkizunak

6. artikulua. Gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak

7. artikulua. Onarpena

8. artikulua. Matrikula

9. artikulua. Gradu bikoitzaren arau akademikoak

10. artikulua. Ebaluazioa

11. artikulua. Tituluak eta tituluaren gehigarri europarrak (TGE) ematea

12. artikulua. Arautegia onartzea

Azken xedapena

ERANSKINA. Farmaziako eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradu Bikoitzaren ikasketa programa


### 1. artikulua. Helburua

Arautegi honen helburua da ikasketa programa bat zehaztea ikasleek Farmaziako Graduko eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduko ikasketa planetako irakasgaiak egin ahal izateko, hartara graduko titulu biak eskura ditzaten. Programazio horren kudeaketa Farmazia Fakultateari dagokio, alde batera utzi gabe arautegi honen bosgarren artikuluan Batzorde Akademikoari emandako eskumenak.

### 2. artikulua. Aplikazio eremua

2.1 Arautegi hau aplikatuko zaie Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) Farmaziako eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradu Bikoitzaren (aurrerantzean «gradu bikoitza») ikasketa programan emango dituen ikasketei.

2.2. Gradu bikoitzaren egiturari esker, bertan matrikulatuta dauden eta programako ikasketak gainditzen dituzten ikasleek bi

## NORMATIVA REGULADORA PARA LA OBTENCIÓN DEL DOBLE GRADO EN FARMACIA Y EN NUTRICIÓN HUMANA Y DIETÉTICA DE LA FACULTAD DE FARMACIA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO (UPV/EHU)


Artículo 1. Objeto

Artículo 2. Ámbito de aplicación

Artículo 3. Dirección académica y ejecutiva

Artículo 4. Composición de la Comisión Académica

Artículo 5. Funciones de la Comisión Académica

Artículo 6. Funciones del Coordinador o Coordinadora del Doble Grado

Artículo 7. Admisión

Artículo 8. Matrícula

Artículo 9. Normativa académica del Doble Grado

Artículo 10. Evaluación

Artículo 11. Expedición de títulos y suplementos europeos a los títulos (SET)

Artículo 12. Aceptación de la normativa

Disposición Final

ANEXO. Programación docente del Doble Grado en Farmacia y en Nutrición Humana y Dietética


### Artículo 1. Objeto

La presente normativa tiene por objeto articular la programación docente que permita cursar las asignaturas de los planes de estudios del Grado en Farmacia y del Grado en Nutrición Humana y Dietética, de manera que dé lugar a la obtención de los dos títulos de grado. La gestión de esta programación corresponde a la Facultad de Farmacia sin perjuicio de las competencias atribuidas a la Comisión Académica prevista en el artículo 5 de esta normativa.

### Artículo 2. Ámbito de aplicación

2.1 La presente normativa será de aplicación a las enseñanzas impartidas por la Universidad del País Vasco (UPV/EHU) dentro de la programación docente específica del Doble Grado en Farmacia y en Nutrición Humana y Dietética (en adelante Doble Grado).

2.2. El Doble Grado está articulado de manera que los y las estudiantes matriculados en él, y que superen los estudios contenidos en su

titulu ofizial eskuratuko dituzte aldi berean: Farmaziako Gradua eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua, eta bi tituluek balioa izango dute estatu osoan.

programación, obtengan simultáneamente los títulos oficiales de Grado en Farmacia y de Grado en Nutrición Humana y Dietética, con validez en todo el territorio nacional.

2.3 Araubide akademikoa, ikasketak emateko arauak, ikasleen ebaluazioa eta, oro har, gradu bikoitzaren ikasketa programaren alderdi akademiko guztiak arautegi honetan zehaztuko dira, eta hemen jasota ez dagoen guztirako, UPV/EHUko arau orokorrak aplikatuko dira.

2.3 El régimen académico, la impartición de las enseñanzas, la evaluación de los y las estudiantes y, en general, todos los aspectos académicos de la programación docente específica del Doble Grado se regirán por las disposiciones contenidas en la presente normativa y, en lo no previsto, se aplicará la normativa general de la UPV/EHU.

**3. artikulua. Zuzendaritza akademikoa eta betearazlea**

**Artículo 3. Dirección académica y ejecutiva**

3.1 Gradu bikoitzaren zuzendaritza akademikoa gradu bikoitzeko Batzorde Akademikoari dagokio. Bertan ordezkatuta daude Farmazia Fakultateko dekanotza taldea eta bi graduetako batzorde akademikoak: Farmaziako Gradukoa eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradukoa.

3.1 La dirección académica del Doble Grado corresponde a la Comisión Académica del Doble Grado, en la que están representados el Equipo Decanal de la Facultad de Farmacia, así como las Comisiones Académicas de los grados en Farmacia y en Nutrición Humana y Dietética.

3.2 Gradu bikoitzeko koordinatzaile lanetan txandakatuko dira, bi ikasturtean behin, Farmaziako Graduko koordinatzailea eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradukoa.

3.2 Actuará como Coordinador o Coordinadora del Doble Grado, rotando alternativamente cada dos cursos académicos, uno o una de los coordinadores y coordinadoras de los grados en Farmacia y Nutrición Humana y Dietética.

**4. artikulua. Batzorde Akademikoaren osaera**

**Artículo 4. Composición de la Comisión Académica**

4.1 Batzorde Akademikoak honako kide hauek izango ditu:

- Farmazia Fakultateko dekanotza taldearen ordezkari bat, dekanoak proposatua.
- Farmaziako Graduko koordinatzailea eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradukoa.
- Farmaziako Graduko mailako koordinatzaileak eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradukoak.
- Gradu bikoitzeko ikasleen ordezkari bat.

4.1 La Comisión Académica estará compuesta por los siguientes miembros:

- Un o una representante del Equipo Decanal de la Facultad de Farmacia, a propuesta de su Decano o Decana.
- Los coordinadores y las coordinadoras de los grados en Farmacia y en Nutrición Humana y Dietética.
- Los coordinadores y las coordinadoras de curso de los grados en Farmacia y en Nutrición Humana y Dietética.
- Un o una representante de los estudiantes del Doble Grado.

4.2 Batzorde Akademikoko idazkari lanetan txandakatuko dira, bi ikasturtean behin, titulazio bateko eta besteko mailako koordinatzaileak.

4.2 Actuará como Secretario o Secretaria de la Comisión Académica, rotando alternativamente cada dos cursos académicos, uno o una de los coordinadores y coordinadoras de curso de las dos titulaciones.

4.3 Batzorde Akademikoko burua izango da Farmazia Fakultateko dekanotza taldearen ordezkaria.

4.3 Actuará como Presidente o Presidenta de la Comisión Académica el o la representante del Equipo Decanal de la Facultad de Farmacia.

**5. artikulua. Batzorde Akademikoaren eginkizunak**

**Artículo 5. Funciones de la Comisión Académica**

5.1 Gradu bikoitzeko Batzorde Akademikoaren ardura izango da, oro har, gradu bikoitzaren zuzendaritza akademikoa.

5.1 A la Comisión Académica del Doble Grado le corresponderá, con carácter general, la dirección académica del Doble Grado y específicamente las siguientes funciones:

Zehazki, eginkizun hauek izango ditu:

- Gradu bikoitzaren antolaketa akademikoa.
- Gradu amaierako lanetarako proposatutako gaien onarpena.
- Gradu bikoitzaren irakaskuntzaren kalitatea bermatzea eta zaintzea, ikastegiko Kalitate Batzordearekin koordinazioan.

5.2 Batzorde Akademikoa gutxienez sei hilean behin bilduko da, batzordeko buruak deituta. Era berean, Batzorde Akademikoko hiru kidek gutxienez hala eskatzen dutenean ere bilera egin ahal izango da.

5.3 Batzorde Akademikoak ahalegina egingo du erabakiak aho batez hartzeko, eta, ezinezkoa denean, ikastegiko zuzendariak hartuko du erabakia.

**6. artikulua. Gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak**

Honako hauek izango dira gradu bikoitzeko koordinatzailearen eginkizunak:

- Batzorde Akademikoak hartutako erabakiak betetzea.
- Gradu bikoitzaren ordezkaria izatea.
- Beste zeregin batzuk, Batzorde Akademikoak emandakoak edo UPV/EHUko arauen arabera titulazioko koordinatzaileari dagozkionak.

**7. artikulua. Onarpena**

7.1 Ikasleak gradu bikoitzean onartzeko aplikatuko dira UPV/EHUk ikasleak onartzeko dituen arau orokorrak.

7.2 Gradu bikotzeko onarpen nota kalkulatzeko, kontuan hartuko da Farmaziako Graduari eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduari dagozkien gai espezifikoen haztapenetik lortutako kalifikaziorik onena.

**8. artikulua. Matrikula**

8.1 Administrazio ondorioetarako, gradu bikoitza Farmazia Fakultateko gradua izango da.

8.2 Gradu bikoitzean onartutako ikasleek matrikula egingo dute gradu horretan UPV/EHUko gainontzeko ikasleen baldintza berberetan.

8.3 Ikasleek matrikula egitean prezio publikoak ordainduko dituzte arlo horretako

- La organización académica del Doble Grado.
- Aprobar las propuestas de tema de los Trabajos Fin de Grado.
- La responsabilidad y seguimiento de la calidad docente del Doble Grado en coordinación con la Comisión de Calidad del Centro.

5.2 La Comisión Académica se reunirá al menos una vez cada semestre, convocada por su Presidente o Presidenta. Así mismo, se podrá celebrar una reunión a solicitud de, al menos, tres miembros de la Comisión Académica.

5.3 La Comisión Académica intentará adoptar sus decisiones por unanimidad, si no fuera posible la cuestión sería sometida a resolución del Decano o Decana del Centro.

**Artículo 6. Funciones del Coordinador o de la Coordinadora del Doble Grado**

Las funciones del Coordinador o de la Coordinadora del Doble Grado serán las siguientes:

- Ejecutar los acuerdos adoptados por la Comisión Académica.
- Ejercer la representación del Doble Grado.
- Otras funciones que le encomiende la Comisión Académica o que, según la normativa al respecto de la UPV/EHU, correspondan al Coordinador o a la Coordinadora de Titulación.

**Artículo 7. Admisión**

7.1 La admisión de los estudiantes se realizará de acuerdo con lo establecido por la normativa general que regula los procedimientos de admisión en la UPV/EHU.

7.2 Para calcular la nota de admisión al Doble Grado se tendrá en cuenta la mejor calificación resultante de la ponderación de las materias específicas correspondientes al Grado en Farmacia y al Grado en Nutrición Humana y Dietética.

**Artículo 8. Matrícula**

8.1 A efectos administrativos, este Doble Grado estará asignado a la Facultad de Farmacia.

8.2 Los y las estudiantes admitidos en el Doble Grado formalizarán su matrícula en el mismo en idénticas condiciones que el resto del alumnado de la UPV/EHU.

8.3 Los y las estudiantes matriculados abonarán los precios públicos que correspondan, de acuerdo con lo previsto en la normativa que regula esta materia, pudiendo

arauetan jasotakoari jarraituz, eta eskubidea izango dute ordaintzetik salbuetsita egoteko arau horietan edo legeetan zehaztutako baldintzak betetzen baldin badituzte.

**9. artikulua. Gradu bikoitzaren arau akademikoak**

9.1 Gradu bikoitzean onartutako ikasleak haren ikasketa programako irakasgaietan baino ez dira matrikulatuko maila bakoitzean. Ikasketa programa arautegi honen I. eranskinean dago jasota.

9.2 Lehenengo mailan, maila horretako kreditu guzti-guztietarako egin beharko dute matrikula. Hurrengo maila bakoitzean ikasleak gutxienez 60 kreditutan matrikulatu beharko dira, gradu bikoitzeko programa osoa amaitzeko 60 kreditu baino gutxiago falta zaizkienean izan ezik.

9.3 Ikasturte bakoitzean ikasleek gutxienez matrikulatutako kredituen % 60 gainditu beharko dituzte. Edozelan ere, ikasleek gehienez ere zortzi ikasturtetan amaitu beharko dute programa.

9.4 Aurreko puntuko (9.3) baldintzaren bat betetzen ez duten ikasleek utzi egin beharko dute gradu bikoitza. Hala ere, Farmaziako Graduan edo Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduan —beraiek aukeratutakoan— jarraitu ahal izango dituzte ikasketak. Horretarako, eskaria aurkeztu beharko dute ikastegiko idazkaritzan. Ikasle horiek eskolak ezarritako epeetan eta irizpideen arabera egin beharko dute matrikula.

Era berean, ikasle batek erabakiz gero gradu bikoitza bere borondatez uztea, aurreko paragrafoan azaldutako prozedura aplikatuko zaio aukera izan dezan Farmaziako Gradura edo Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradura pasatzeko.

9.5 Farmaziako Graduko eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduko tituluak lortzeko kredituen aitorpena egingo da ikasleak gaindituta dituenean gradu bikoitzaren ikasketa programako irakasgai guztiak, bi titulazioetako gradu amaierako lanak barne.

**10. artikulua. Ebaluazioa**

Gradu bikoitzean matrikulatutako ikasleen ebaluazioa egingo da gainontzeko titulazio ofizialetako ikasleentzat ezarritako ohiko prozedurari jarraituz, eta graduko titulazio ofizialetarako Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoaren arabera.

beneficiarse, en su caso, de las exenciones previstas en la misma o de las que legalmente procedan.

**Artículo 9. Normativa académica del Doble Grado**

9.1 Los y las estudiantes admitidos en el Doble Grado se matricularán en cada curso solamente en las asignaturas recogidas en su programación docente y que se desarrolla en el Anexo a esta normativa.

9.2 En el primer curso, los y las estudiantes deberán matricularse de todos los créditos correspondientes al curso completo. En los cursos posteriores, los y las estudiantes deberán matricularse al menos de 60 créditos, salvo que les reste un número menor de créditos para finalizar el programa docente del Doble Grado.

9.3 En cada curso académico los y las estudiantes deberán superar al menos el 60 % de los créditos matriculados. En todo caso, los y las estudiantes deberán finalizar el programa en un máximo de ocho cursos académicos.

9.4 Los y las estudiantes que incumplan alguno de los requisitos del punto 9.3 deberán abandonar el Doble Grado. Podrán continuar sus estudios en la titulación oficial de Grado en Farmacia o Grado en Nutrición Humana y Dietética, a su elección. Para ello, deberán realizar la solicitud en la Secretaría del Centro. La matrícula de este alumnado se realizará dentro de los plazos y de acuerdo con los criterios que la Facultad establezca.

Así mismo, si un o una estudiante decide abandonar voluntariamente el Doble Grado, se le aplicará el procedimiento señalado en el párrafo anterior para que pueda incorporarse al Grado en Farmacia o al Grado en Nutrición Humana y Dietética.

9.5 Los reconocimientos de créditos para la obtención de los títulos de Grado en Farmacia y Grado en Nutrición Humana y Dietética se realizarán una vez superadas todas las asignaturas de la programación docente específica del Doble Grado, incluidos los Trabajos Fin de Grado de ambas titulaciones.

**Artículo 10. Evaluación**

La evaluación de los alumnos y las alumnas matriculados en el Doble Grado se realizará de acuerdo con el procedimiento ordinario establecido para los estudiantes del resto de las titulaciones oficiales, y en los mismos periodos previstos en el calendario académico aprobado por el Consejo de Gobierno para el conjunto de las titulaciones oficiales de grado.

**11. artikulua. Tituluak eta tituluen gehigarri europarrak (TGE) ematea**

Gradu bikoitzaren programa gainditzen duten ikasleek Farmaziako Graduaren eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Graduaren tituluak eta titulu horien gehigarri europarrak eskatu ahal izango dituzte, kasuan kasuko prezio publikoak ordainduta.

**12. artikulua. Arautegia onartzea**

Gradu bikoitz honetan matrikulatutako ikasleek arautegi honi jarraitu beharko diote, eta hemen jasota ez dagoenerako, UPV/EHUko arau orokorrei.

**AZKEN XEDAPENA**

Arautegi hau 2019/2020 ikasturtean sartuko da indarrean.

**Artículo 11. Expedición de títulos y suplementos europeos a los títulos (SET)**

Tras la superación de la programación del Doble Grado los egresados y las egresadas podrán solicitar la expedición de los títulos y los SET del Grado en Farmacia y del Grado en Nutrición Humana y Dietética, previo pago de los precios públicos correspondientes.

**Artículo 12. Aceptación de la normativa**

El alumnado matriculado en el Doble Grado se regirá por las previsiones establecidas en esta normativa y, en lo no previsto, por la normativa general de la UPV/EHU.

**DISPOSICIÓN FINAL**

La presente normativa entrará en vigor en el curso académico 2019-2020.

# ERANSKINA

## Farmaziako eta Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradu Bikoitzaren programa

| 1. MAILA (72 kreditu) | | | |
|---|---|---|---|
| 1. lauhilekoa | 36 ECTS | 2. lauhilekoa | 36 ECTS |
| Zelulen eta Ehunen Biologia | 6 | Giza Anatomia | 6 |
| Fisika | 6 | Landareen Biologia | 6 |
| Matematika eta Estatistika | 9 | Biokimika | 6 |
| Kimika Orokorra eta Ez-organikoa | 9 | Kimika Fisikoa | 6 |
| Elikadura eta Kultura | 6 | Kimika Organikoa | 6 |
| | | Legeria, Deontologia eta Kudeaketa | 6 |
| **2. MAILA (72 kreditu)** | | | |
| 1. lauhilekoa | 36 ECTS | 2. lauhilekoa | 36 ECTS |
| Kimika Organiko Aurreratua | 6 | Biokimika Klinikoa | 6 |
| | | Fisiopatologia | 6 |
| Biologia Molekularra | 6 | Immunologia | 6 |
| Giza Fisiologia | 9 | Mikrobiologia eta Parasitologia Orokorra | 6 |
| Kimika Analitikoa | 9 | Teknika Instrumentalak | 6 |
| Psikologia eta Komunikazioa | 6 | Elikagaien Kimika eta Biokimika | 6 |
| **3. MAILA (74 kreditu)** | | | |
| 1. lauhilekoa | 26 ECTS | 2. lauhilekoa | 36 ECTS |
| Farmakologia I | 8 | Farmazia Galenikoa | 9 |
| Mikrobiologia eta Parasitologia Deskribatzailea | 9 | Farmakologia II | 9 |
| | | Giza Nutrizioa | 9 |
| Bromatologia | 9 | Sukaldaritza Teknologia eta Elikagaien Prozesatzea | 9 |
| Urtekoa (12 ECTS) | | | |
| Kimika Farmazeutikoa | | | 12 |
| **4. MAILA (72 kredituak)** | | | |
| 1. Lauhilekoa | 24 ECTS | 2. Lauhilekoa | 24 ECTS |
| Biofarmazia eta Farmakozinetika | 9 | Farmazia Klinikoa eta Farmakoterapia | 8 |
| Farmakognosia | 7 | Kudeaketa, Plangintza, Legeria eta Deontologia | 7 |
| Teknologia Farmazeutikoa I | 8 | Teknologia Farmazeutikoa II | 9 |
| Urtekoa (24 ECTS) | | | |
| Dietetika Orokorra eta Aplikatua | | | 12 |
| Elikagaien Segurtasuna eta Kalitatea | | | 12 |

| 5. MAILA (60 kreditu) | | | |
|---|---|---|---|
| 1. lauhilekoa | 30 ECTS | 2. lauhilekoa | 30 ECTS |
| Mikrobiologia eta Parasitologia Orokorra | 6 | Farmaziako Praktika Gidatuak | 24 |
| Osasun Publikoa | 6 | | |
| Toxikologia | 6 | Farmaziako Gradu Amaierako Lana | 6 |
| Immunonutrizioa eta Elikadura Alergiak | 6 | | |
| Komunitate Elikadura | 6 | | |
| **6. MAILA (60 kreditu)** | | | |
| 1. lauhilekoa | 30 ECTS | 2. lauhilekoa | 30 ECTS |
| Dietoterapia | 9 | Giza Nutrizioko eta Dietetikako Praktika Gidatuak | 20 |
| Talde Espezifikoen Nutrizioa eta Dietetika | 9 | | |
| Taldeentzako Sukaldaritza | 6 | Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradu Amaierako Lana | 10 |
| Nutrizioarekin Lotutako Epidemiologia | 6 | | |

**Maila bakoitzeko ECTS kreditu kopurua**

| Maila | Oinarrizkoak | Nahitaezkoak | Kanpoko praktikak | Gradu Amaierako Lana | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| **1.** | 54 | 18 | | | **72** |
| **2.** | 15 | 57 | | | **72** |
| **3.** | | 74 | | | **74** |
| **4.** | | 72 | | | **72** |
| **5.** | | 30 | 24 | 6 | **60** |
| **6.** | | 30 | 20 | 10 | **60** |
| **Guztira** | **69** | **281** | **44** | **16** | **410** |

**ANEXO:**

**Programación Docente del Doble Grado en Farmacia y en Nutrición Humana y Dietética**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **CURSO 1º (72 créditos)** | | | |
| Cuatrimestre 1 | 36 ECTS | Cuatrimestre 2 | 36 ECTS |
| Biología Celular y Tisular | 6 | Anatomía Humana | 6 |
| Física | 6 | Biología Vegetal | 6 |
| Matemáticas y Estadística | 9 | Bioquímica | 6 |
| Química General e Inorgánica | 9 | Fisicoquímica | 6 |
| Alimentación y Cultura | 6 | Química Orgánica | 6 |
| | | Legislación, Deontología y Gestión | 6 |
| **CURSO 2º (72 créditos)** | | | |
| Cuatrimestre 1 | 36 ECTS | Cuatrimestre 2 | 36 ECTS |
| Ampliación de Química Orgánica | 6 | Bioquímica Clínica | 6 |
| | | Fisiopatología | 6 |
| Biología Molecular | 6 | Inmunología | 6 |
| Fisiología Humana | 9 | Microbiología y Parasitología General | 6 |
| Química Analítica | 9 | Técnicas Instrumentales | 6 |
| Psicología y Comunicación | 6 | Química y Bioquímica de los Alimentos | 6 |
| **CURSO 3º (74 créditos)** | | | |
| Cuatrimestre 1 | 26 ECTS | Cuatrimestre 2 | 36 ECTS |
| Farmacología I | 8 | Farmacia Galénica | 9 |
| Microbiología y Parasitología Descriptiva | 9 | Farmacología II | 9 |
| | | Nutrición Humana | 9 |
| Bromatología | 9 | Tecnología Culinaria y Procesado de Alimentos | 9 |
| Anual (12 ECTS) | | | |
| Química Farmacéutica | | | 12 |
| **CURSO 4º (72 créditos)** | | | |
| Cuatrimestre 1 | 24 ECTS | Cuatrimestre 2 | 24 ECTS |
| Biofarmacia y Farmacocinética | 9 | Farmacia Clínica y Farmacoterapia | 8 |
| Farmacognosia | 7 | Gestión, Planificación, Legislación y Deontología | 7 |
| Tecnología Farmacéutica I | 8 | Tecnología Farmacéutica II | 9 |
| Anual (24 ECTS) | | | |
| Dietética General y Aplicada | | | 12 |
| Seguridad y Calidad Alimentaria | | | 12 |

| CURSO 5º (60 créditos) | | | |
|---|---|---|---|
| Cuatrimestre 1 | 30 ECTS | Cuatrimestre 2 | 30 ECTS |
| Microbiología y Parasitología Clínica | 6 | Prácticas Tuteladas Farmacia | 24 |
| Salud Pública | 6 | | |
| Toxicología | 6 | Trabajo Fin de Grado en Farmacia | 6 |
| Inmunonutrición y Alergias Alimentarias | 6 | | |
| Alimentación Comunitaria | 6 | | |

| CURSO 6º (60 créditos) | | | |
|---|---|---|---|
| Cuatrimestre 1 | 30 ECTS | Cuatrimestre 2 | 30 ECTS |
| Dietoterapia | 9 | Prácticas Tuteladas NHD | 20 |
| Nutrición y Dietética de Colectivos Específicos | 9 | | |
| Restauración Colectiva | 6 | Trabajo Fin de Grado en Nutrición Humana y Dietética | 10 |
| Epidemiología Nutricional | 6 | | |

**Carga de ECTS por cursos**

| Curso | Formación Básica | Formación Obligatoria | Prácticas Externas | Trabajo Fin de Grado | Total |
|---|---|---|---|---|---|
| **1º** | 54 | 18 | | | **72** |
| **2º** | 15 | 57 | | | **72** |
| **3º** | | 74 | | | **74** |
| **4º** | | 72 | | | **72** |
| **5º** | | 30 | 24 | 6 | **60** |
| **6º** | | 30 | 20 | 10 | **60** |
| **Total** | **69** | **281** | **44** | **16** | **410** |